



Kanpezu-Arabako Mendialdea

10,8km |  IBILBIDE ZIRKULARRA
ERRAZA |  450m |  Walking 2h. 15' |  Running 1h. 20' |  www.walkingandrunning.es




APINAIZ > SAN KRISTOBAL (1.057m) > SAN JUSTI (1.028m)








 Karrantaneko presagaina

Ibilbide eder hau Izkiko Parke Naturalaren barnean dago; Apinaiz herri xarmagarrian hasten da, Arabako Mendialdean. Herriko etxeak atzean utzi ondoren El Carteroko bidearen seinaleek markatuko digute ibilbidea. Bide atsegina goraka doa Karrantango presara eta bertako iturritxora heldu arte. Aurrera egin eta El Rasoko lepoa aurkituko dugu; hortik lauan jarraituko dugu San Kristobalgo bidera daraman zidorretik eta apur batean goi ordokitik gora egin ondoren tontorrera helduko gara. San Kristobalen gailurretik San Justira joango gara; han Izkiko Parke Naturalaren ikuspegi panoramikoak edukiko ditugu eta naturaren ñabardura kromatikoek liluratuko gaituzte.

 Gasteiztik A-132 errepidea hartu Azazetatik Birgara Goienarte, eta hor dago Apinaizerako eskuineko desbideratzea (A-4122), Gasteiztik 28 km inguruan. Apinaiz Arraia-Maeztu udalerraren barne dago.

Izkiko Parke Naturalean dagoen ibilbide honetan Arboroko soilguneetatik igaroko gara Apinaiz herri xarmantetik, ( 1) Arabako Mendialdean. Elizaren ondoan aparkaleku bat dago; hortxe hasten da ibilbidea ( 2). Herriko etxeak atzean utzi ondoren ( 3) El Carteroko bidearen seinaleek markatuko digute ibilbidea.


Ibilbidea gaztainondoetatik igarotzen da Karrantango urtegira ( 4) eta bere iturri txikira iritsi arte. Aurrera jarraituta ( 5) El Raso muinoa dago (958 m.); puntu horretan bi bidezidor daude. Aurrean Txarabitanako bidea dago, Arluzeako muinora doana, eta bestea El Cartero bidea deitzen da ( 6). Hortik joango gara eskuineko marka horiei jarraituta, mendiaren alboan, Done Kristobal ( 7) tontorra adierazten duen muinora arte; bertara iritsiko gara goi ordokitik pixka bat jaitsi ondoren. Tontorretik Apinaiz, Birgara Goien edo Maeztu ikusi daitezke albo batean, eta beste aldean Izkiko Parke Naturala guztia.



Walking & Running ARABA-ÁLAVA

Done Kristobal tontorretik bide berari jarraitu eta bide zuzen eta laua hartuko dugu Done Justiraino (📍 8), amildegi ondotik. Ibilbidean zehar zenbait zutabe adierazle gehiago egongo dira. Tontor horretan erpin geodesikoa eta postontzia daude, elkarrengandik zertxobait banatuta (📍 9); ia ez dira ikusten.

Done Justi ondoren bidean atzera egingo dugu ekialdera beherantz eginez doan bidea aurkitzeko (📍 10). Gutxi barru beste zutabe adierazlea ikusiko dugu ezkerrean, "Txarabitanako bidea" (📍 11) markatzen duena. Bide hori beheko haranetik doa, eta haitzartea goian dago orain, ezkerreko aldean. Itzultzeko bidea arazorik gabe egitekoa da, ibilbidea adierazteko zutabe oso erabilgarriak (📍 12) baitaude.



Interesguneak

- Vasco-Navarro trenbide zaharreko Bide Berdea.
- GR 38 Ardoaren eta Arrainaren Bidea.
- Ignaziotar Bidea.
- Izkiko Parke Naturala.
- Izkiko Golf.
- Izkiko BTT zentroa.

Ibilbide gehiago hemen

www.alavaturismo.eus
www.montanaalavesa.com

Vasco-Navarro trenbide zaharreko Bide Berdea 📍

araba álava
foru aldundia diputación foral

alava
turismo.
elis



EUSKADI
BASQUE COUNTRY